

# Emakumeek zientzietan, arteetan eta letretan betetzen duten zeregina agerian jartzen duen erakusketa bat antolatu du Jakiundek Iruñean

- Donostiatik eta Bergaratik igaro ondoren, '24 emakume-mujeres-femmes' erakusketa ibiltaria Iruñera iritsi da, Karlos III.a Etorbidera, eta apirilaren 30era arte egongo da ikusgai.
- Aire zabaleko erakusketa hori osatzeko, solasaldi bat egingo da apirilaren 29an, CIVICANen.
- '24 emakume-mujeres-femmes' erakusketaren mezua Euskal Herriko kale eta plazetan zehar zabaldu nahi da.

2024ko apirilak 9, *Iruña-Pamplona*. Jakiundek, Zientzia, Arte eta Letren Akademiak, '24 emakume-mujeres-femmes' erakusketa jarri du Iruñeko Karlos III.a Etorbidean. Jakiundeko kideen 24 argazkiz osatutako erakusketa da, eta, haren bidez, emakumeek zientzietan, arteetan eta letretan betetzen duten zeregina jarri nahi da agerian Euskal Herriko kale eta plazetan zehar.

Gizarteari errealitatea erakusteko eta etorkizuneko belaunaldiak inspiratzeko asmoz, lanbide-karrera luze baten ondoren beren diziplinetan bikaintasuna lortu duten emakume akademiko batzuk eta beren lanbidean puntako lana egiten duten beste emakume akademiko gazteago batzuk ikus daitezke aire zabaleko erakusketa horretan.

Erakusketaren lehen geldialdia Donostia izan zen, Zuloaga plaza, zehazki. Bertan, otsailaren 6tik 28ra arte egon zen ikusgai. Geroago, martxoaren 1etik 31ra arte, Bergaran egon zen, Laboratoriumeko lorategian. Orain, berriz, apirilaren 2az geroztik, Iruñean dugu.

Jakiundek zientziak, arteak eta letrak sustatzeko jarduera ugari sustatzen ditu urte osoan, eta egungo erronkarik garrantzitsuenetako bati erreparatu nahi izan dio oraingoan, hots, gure gizarteak aurrera egiteko funtsezkoak diren jakintza-arloetan emakumeek egiten duten lana ikusezin bihurtzen duten gizarte-ohiturak gainditzeko erronkari.

“Neska-mutilek edozein diziplinatan aukera-berdintasunean ikasi eta lan egin ahal izan dezaten, emakumeek bizitzaren arlo guztietan zer presentzia duten jakin behar du gure gizarteak, eta presentzia horri agerikotasuna eman behar zaio. Emakumeek zientzietan, arteetan eta letretan lan egiten dute, ekarpenak egiten dituzte eta egiten duten lanarekin gozaten dute”, azpimarratu du Jakiundeko presidente Juan Ignacio Pérezek.

## **Solasaldi osagarria**

Jakiundek, erakusketarekin batera, solasaldi bat antolatu du. Apirilaren 29ko 19:00etan egingo da, CIVICANen. Solasaldiaren izenburua “Seudosinonimoak: periferia eta tradizioa, globaltasuna eta aurrerapena” izango da, eta jakintzak gizarte-oparotasunaren bilaketan betetzen duen zeregina eta tradizioa errespetatzearen eta aurrerapena sustatzearen arteko orekak aztertuko dira bertan. Topaketako protagonistak izango diren

Jakiundeko bost emakume akademikoak, komunitate periferiko batetik datozenak, zientziaren, teknologiaren, hezkuntzaren eta kulturaren esparruetan garatzen dituzte beren lanbide-karrerak, eragin sozioekonomiko globalarekin.

### **Erakusketa ibiltaria**

Erakusketaren lehen geldialdia Donostia izan zen, Zuloaga plaza, zehazki. Bertan, otsailaren 6tik 28ra arte egon zen ikusgai. Geroago, martxoaren 1etik 31ra arte, Bergaran egon zen, Laboratoriumeko lorategian. Orain, berriz, apirilaren 2az geroztik, Iruñean dugu.

Ekimena Jakiundek sustatu du, eta Zientzia eta Berrikuntza Ministerioaren, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren, Nafarroako Gobernuaren eta Laboral Kutxaren babesa jaso du.

### **Jakiunde**

Jakiunde gizartearen egungo erronkei aurre egiteko gogoeta-foro bat da, zehaztasun zientifikoan eta ezagutzan oinarritua, eta zientzien, arteen eta letren artean jakintzak elkartrukatzea bultzatzen saiatzen da. Jakiunde 2007ko urriaren 25ean eratu zen, Eusko Ikaskuntzaren ekimenez eta euskal hizkuntza eta kultura finkatuta dauden lurralde-esparruan kokatutako Unibertsitateen babesarekin. 2009. urteaz geroztik, erakunde independentea da, eta onura publikoko erakundetzat hartu zen 2019an. Haren xedea da bere gogoeta gizartearekin partekatzea, egungo arazoetarako irtenbide egokiak aurkitzeko. UPV/EHUko Fisiologiako katedradun Juan Ignacio Pérez Iglesiasen egungo zuzendaritzapean eta UPV/EHUko Materia Kondentsatuaren Fisikako katedradun Pedro Miguel Etxenikereren ohorezko zuzendaritzapean, beren arloan izen handia duten pertsona ospetsuak biltzen ditu Akademiak. Akademiako kideek aintzatespen publikoa jaso dute zientzia-diziplinetan, arte- eta literatura-sorkuntzan eta pentsamendu kritikoan egindako lanagatik, eta bertako zein nazioarteko sari ospetsuak jaso dituzte, hala nola Euskadi Ikerketa Saria, Vianako Printzea Saria, Eusko Ikaskuntza Saria eta Asturiasko Printzea Saria.

## **SOLASALDIA**

Apirilak 29 - 19.00 - CIVICAN

*Seudosinonimoak: periferia eta tradizioa, globaltasuna eta aurrerapena*

Topaketako protagonistak izango diren Jakiundeko bost emakume akademikoak, komunitate periferiko batetik datozenak, zientziaren, teknologiaren, hezkuntzaren eta kulturaren esparruetan garatzen dituzte beren lanbide-karrerak, eragin sozioekonomiko globalarekin. Solasaldian, jakintzak gizarte-oparotasunaren bilaketan betetzen duen zeregina eta tradizioa errespetatzearen eta aurrerapena sustatzearen arteko orekak aztertuko dira.

### **Hizlariak**

- Nora Alonso: Zientzietan doktorea, ekintzailea, enpresaburua eta nekazaritzako elikagaien sektoreko inbertitzailea
- Maite Apezteguía: arkitektoa
- Iciar Astiasarán: Bromatologia eta Nutrizioko katedraduna Nafarroako Unibertsitatean
- Teresa Catalán: konpositorea
- Maria Irahuri: Biologia eta Binkimikako katedraduna Nafarroako Unibertsitateko errektorea

Argazkia eta bideoak; Marina Palacio

### **Informazio gehiago eta elkarrizketak**

**Ane Muñoz**

[ane@alambre.net](mailto:ane@alambre.net)

**620423209**